



Andra Mari
Ikastetxea

**HEZKUNTZA
PROIEKTUA**

2015

1.- AURKEZPENA

1.1.- Deskribapena

1.2.- Historia

2.- ESKOLAKO ZEREGINA

3.- HELBURUAK

4.- LERRO ESTRATEGIKOAK

5.- CURRICULUMAREN ETA ANTOLAMENDUAREN ESPARRUETAKO AUKERAK

6. INDARRALDIA ETA MANTENTZEA

1.- AURKEZPENA

1.1.- Deskribapena

Haur eta Lehen Hezkuntzako zortzi eskola publiko dago Getxoko herrian, horietako bat Andra Mari izanik. Udalerriaren iparraldean dago kokatuta, Getxoko Andra Mari delako auzoan. Haren eragin eremua Sopela eta Berangoko herrien mugakidea da alde batean, eta Getxoko Bidezabal kaleak bereizten du, bestalde, gure eremua herriko beste eskolenetatik.

Bi eraikin multzok osatzen dute eskola-azpiegitura: nagusiak, Punta Galearaino iristen den Santa Marina Haitza kalean kokatuta, Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urteko haurrak biltzen, Lehen Hezkuntza osoa, Gela Egonkorra eta gune administratibo eta pedagogiko gehienak ere. Hala, ohiko ikasgelez gain liburutegiak, antzerki gela, ingeles gela, musika, irratia, informatika eta psikomotrizitate gelak daude bertan. Eraikin hau behinolako “Miguel de Unamuno” ikastetxe pribatuaren osagarria da, berau 1981.

urtean publiko bihurtu zena. Urte batzuk geroago, kiroldegi bat egin zen hortik hurbil, beste eraikinaren aurre-aurre, eskola-kideek zein herriko kirol taldeek erabiltzeko.

Bigarrena, Saratxaga izenekoa, izen bereko auzoan dago, eskolaren eraikin nagusitik kilometro batera eta Azkorri hondartzarako bidean. Aspaldiko auzo eskola batek, eta abaraska formako beste batek osatzen dute multzo hori. Haur Hezkuntzako 2 eta 3 urteko haurrak biltzen dira bertan. Sakabanaketa horrek, besteak beste, arlo askotan ohi baino baliabide gehiago behar izatea (pertsonek, materialak...) suposatzen du.

Bostehun eta berrogeita hamar bat ikasle inguru ditu ikastetxeak, berrogeita hamar inguru irakasle eta berrogei bat langile ez irakasle (hezkuntza bereziko laguntzaile, bi urteko geletako laguntzaile, atezain, autobus-zaindari, jantokiko arduradunak eta abar). Hiru lerrotan banatzen dira ikasleok, hots, hiru talde ikasmaila bakoitzean, salbuespenak salbuespen. 2013-14 ikasturtera arte horietako bi talde D eredukoak izan dira, eta talde bat B eredukoa. 2014-15 ikasturtetik aurrera sortu diren talde guztiak D eredukoak dira. Gaur egun B eredua 4 urtetik aurrera dago eta desagertzeko joera erakusten du.

Getxoko hiri-eremu nagusietatik urruti samar kokatuta, beharrezko egiten da, gehien-gehienetan, zerbitzu osagarriak erabiltzea. Hau honela, ikasle gehienak (%95tik gora) dira jantokiko erabiltzaile; eta kopuru handia ere garraioakoa. 2012-2013 ikasturtean B ereduko eragin eremua murriztu zuen Hezkuntza Departamenduak eta horren ondorioz garraioa erabiltzeko eskubidea ere bai. Gaur egun gero eta ikasle gehiago ari dira eskolara oinez eta auto partikularrez etortzen. Lagungarri izanagatik ere, garraioak eta jantokiak konplexuago bihurtzen dute nabarmenki eskola-antolamendua; bai kudeaketan, bai zerbitzu horiei loturik suertatzen diren arazoak kontuan izanik.

Bulegaririk ez egonik, zuzendari-taldeak hartzen du bere gain kudeaketa-lan oro. Hala, aspaldian harturiko erabaki bati jarraiki talde horren hiru partaideek ez dute klaserik ematen. Honez gain, dena den, Klaustroak eta Eskola-Kontseiluak behar den beste maiztasunez biltzen dira, berez dagozkien zeregin eta eskumenen jabe egonik.

Guraso Elkarateak, "Etorkizuna" izenez ezagunak, hirurehun eta hogeita bederatzikide dituzten ikasleen gurasoen artean. Besteak beste, ikasturte bukaerako jaiak, bi urteko laguntzaileen kudeaketak eta eskola-orduz kanpoko ekintzen antolatzea arduratzen da, azken horietan handia izanik ikasleen partaidetza. Mendi Talde bat ere dago eskolan, asteburuko irteeren antolatzen duena.

Indarrean dagoen curriculum-proiektuaren arabera, matematika gaietan soilik egiten da bereizketarik "B" eta "D" hizkuntza-ereduen artean; eta hau Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloetan. Gainera, indar handia egiten da eleaniztasuna bultzatzeko, era horretan Ingelesa erabiliz komunikazio-hizkuntza gisa zenbait ikasgaiaren irakaskuntzan.

Arlo pedagogikoko proiektu eta esperientzia askotan da gure eskola partaide, hala nola Nolega (eskola-irratia), ACEX (eskola-orduz kanpoko liburutegi-zerbitzua), Kalitatearen etengabeko hobekuntza, Hizkuntza-Normalkuntza, Bizikidetzaren proiektua, Bikaintasunerutz Proiektua, Sare Hezkuntza (Modu digitalean komunikatzeko kompetentzia), Haur Hezkuntzako proiektuetan oinarritutako metodologia eta abar.

Gure eremutik hurbil-hurbil egonik, Bigarren Hezkuntzako Aixerrota Institutura pasatzen dira gure ikasle gehienak Lehen Hezkuntza bukatutakoan, zona bereko beste zenbait eskoletakoekin batera.

Oro har, esan dezakegu azken urteotan aurrerapen handiak egin direla gure ikastetxean alderdi askotan, esate baterako azpiegituraren hobekuntzan, barne-antolaketan, pedagogia-proiektuen garapenean edota irakaskuntza-sisteman sortzen diren hobekuntzak egokitzeko lanetan. Era berean, eskola-komunitatea, orokorrean, gure funtzionamenduarekin ase dagoela esan dezakegu, behin baino gehiagotan komunitateko partaide askok adierazi duten bezalaxe gogobetetasun inkesta desberdinetan.

1.2.- Historia

Hiru elementu desberdin aipatu behar da, egun Andra Mari izenez ezagutzen den ikastetxearen sorrera nolakoa izan den jakiteko:

- “Colegio Nacional Santa Maria de Getxo” izenekoa. Getxoko Maidagan kalean kokaturiko eraikin zaharrean zuen egoitza, gaur Geroa ikastolako osagarria dena.
- Saratxagako auzo-eskola. Primo de Rivera jeneralaren diktadura garaian egina, Saratxagako auzoaren zerbitzurako eraiki zen, auzo hori nekazaria zen garaian, alegia. 1970ko “Ley General de Educación” delakoaren ondorioz heziketa sisteman izandako birmoldaketari loturik, Saratxagako eskola lehen aipaturiko “Santa Maria de Getxo” Kolegio Nazionalaren Haur Hezkuntzako osagarria izatera pasatu zen. Hala, lehengo auzo-eskola zenaren ondoan abaraska moduko beste eraikin bat egin zen, garai hartan Haur Hezkuntzarako modan ziren horietakoa.
- “Colegio Miguel de Unamuno” zeritzan ikastetxe pribatua. 1975. urtean eraikia, unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-etapa guztiak bilduko zituen, egungo beste ikastetxe pribatu handirekin suertatzen denaren antzera. Dena den, urte batzuk geroago izan zituzten arazo ekonomiko larriak direla eta, porrot egin zuen, eta, ondorioz, garaiko Hezkuntza-Ministeritza egin zen haren jabe salmenta baten bidez. Bukaturik zegoen eraikina, zaharrena beraz, oraingo Andra Mari Ikastetxeko eraikin nagusia izatera pasatu zen. Eraikuntza bukatu barik zegoen aldea, berriz, oraingo Aixerrota Institutu bihurtu zen urte batzuk geroago, Ministerioren ardurapean jadanik eraikuntza-lanak bukatu ondoren.

Hau guztia jakin ondoren, esan dezakegu, beraz, Andra Mari Ikastetxearen historia 1981. urtean hasi dela, aipatu elementu horien guztien batura egin eta gero. Eskolaren deskribapenean zehazten da, aurrekoari loturik, zen eremu betetzen duen

gaur egun, bai azpiegituran, bai eragin-eremu geografikoan ere. Kepa Camiña irakaslea zen orduan eskolako zuzendaria, eta garai berean hartu zen, besteak beste, sortu berria zen hura “Andra Mari” izenez ezagutzeko erabakia; aurreko tradizioari muzin egin gabe izaera euskalduna nabarmentzeko asmoz.

Sobera ezagunak dira gure Hezkuntza-Sistema publikoak garai hartatik hona jasandako aldaketak eta bizi izandako gertaerak: heziketaren alorrean Eusko Jaurlaritzak bere gain harturiko eskumenak; euskalduntze-prozesua; pedagogian, metodologian eta teknologian izandako berrikuntzak; eskola eta hezkuntza-sistema osoaren barne-antolamenduri begira sorturiko legeak eta eragindako aldaketak... horiek guztiek, suposa daitekeenez, izan dute eraginik gure ikastetxearen gainean, beste askotan suertatu bezalaxe. Esan beharra dago, dena den, tradizioa izan dela gurean berrikuntzen aldeko jarrera erakustea, beroriek edozelakoak direlarik ere. Goian aipaturiko aldaketa horietan guztietan, beste askoren artetan, halaxe suertatu da; eta Andra Mari ikastetxeak egun duen nortasuna, neurri handi batean, horien ondorio zuzena dela esan daiteke.

Hala, honako gertaera hauek aipa ditzakegu aurrean esandako guztiari lotuta, Andra Mari Ikastetxearen azken urteotako historian bereziki esanguratsu:

- 1981-1995 urte artean: Hizkuntza-ereduen aldaketa progresiboa, beti ere euskalduntze-prozesuan aurrera pausuak ematearen alde.
- 1991. urtean: APYMA-Etorkizuna guraso elkarrearen sorrera. Eskolan izandako bigarrena da; aurrean izandako beste baten ordezkapena era gradualean hartu duena. Horren ondorio zuzena izan da, esate baterako, eskola-orduz kanpo ekintzak euskaraz eskaintzen hastea.
- 1990-95 urteen bitartean: Barne-antolamenduan aldaketa esanguratsuak: AIA eta ICP osatu, zuzendari-taldea antolatu oraingo eran, ziklo-koordinatzaile zein beste irakasle batzuek osaturiko Pedagogia-Batzordea sortu eta eratu, eta abar.
- 1997. urtean: LOGSE-k zehazturiko Hizkuntza-sistemaren eraketa berriaren arabera, DBH sortzeak aldaketa nabariak eragin zituen gurean; bai pedagogia-proiektuaren aldetik (goiko bi ikasmailtako ikasle-multzoa gure eremutik kanpo geratuko zen, institutuen ardurapeko izatera pasatzeko), bai azpiegituraren alorrean ere (espazio libre gehiago izatea onuragarri suertatu zen oso artean antolatu ezineko zeregin askori ekiteko.
- 1997. urtetik hona: Proiektu, esperientzia eta zeregin askotan sartu da ikastetxea lanetan, besteak beste konstruktibismoa, eleaniztasuna, hizkuntza-normalkuntza, irratia, Socrates-Comenius, eta abar.


- 2004-2005 ikasturtean lehenengo Kalitate prozesuak ezarri ziren. Ondorengo ikasturtean osatu zen Hobekuntza kudeatzeko sistema hau, eta urtero ebaluatu eta gaurkotu egiten da. Gaur egun “Kalitatea Hezkuntza” agiria du Andra Mari Ikastetxeak
- 2012-2013 ikasturtean Ikastetxeak Heldutasun erdiko maila lortu zuen (Modu digitalean komunikatzeko konpetentzia)



ESKOLAKO ZEREGINA

Getxoko Andra Mari Ikastetxearen zeregina pertsonak osotasunean hezte da, bizitzaren erronkei aurre egiteko gai izan daitezen. Horretarako eta ikas-komunitate osoaren partaidetzaz ezinbestekotzat ditugu:

- ✓ Oinarrizko konpetentziak garatzea.
- ✓ Euskara eta eleaniztasuna sustatzea.
- ✓ Aniztasunaren trataera bultzatzea: Eskola inklusiboa eta lan kooperatiboaren bitartez.
- ✓ Ikasleen pentsamendu autonomo eta kritikoa indartzea.
- ✓ Giza- baloreetan hezte.



1. HELBURUA

Ikasleak bizitzarako prestatzea, ikasle bakoitzaren izaera eta egoera kontuan hartuta, heziketa osoa emanez, hiritar arduratsuak prestatuz.

PROIEKTUAK, PLANAK ETA BESTE

- Zuzendaritza proiektua
- Urteko Plangintza eta Oroitza
- Proiektu curricularra
- Kalitate sistema
- Hizkuntz Proiektua
- HIP
- Curriculum aniztasuna
- Bizikidetza Plana
- Hezikidetza
- Tutoretza Plana
- AJA
- Eskola Inklusiboa. Aholkularitza
- Hizkuntza Normalkuntza Proiektua
- Ingelesa proiektua
- Baliabide tekn. hornikuntza
- Irakasle koadernoak
- Intraneta
- WEB orria
- TIK heldutasuna
- Eskola 2.0

1. ildo estrategikoa: Aniztasunaren trataera bultzatzea **eskola inklusiboa** eta lan kooperatiboaren bitartez. Zailtasunen/adimen-gaitasun handikoen detekzio goiztiarra egitea eta beharrak bideratzea Orientazio zerbitzuaren eskutik gaitasun desberdinetako ikasleei erantzuna ematea (adimen gaitasun handikoei zein zailtasunak dituztenei.)

2. ildo estrategikoa: **Ikasle bakoitzaren jarraipen zuzena** sustatzea. Tutoretza lanak hobetzea, banakakoa zein taldekoa.

3. ildo estrategikoa: Ikasleen **oinarrizko kompetentziak** garatzea, Curriculum berriari (kompetentzietan oinarrituta) programazioak, ebaluazio irizpideak eta txostenak egokituz.

4. ildo estrategikoa: Ikasteko-irakasteko prozesuan **Euskara baliabide komunikatibo nagusi gisa bermatzea** eta **eleaniztasuna bultzatzea**, hizkuntzen trataera bateratua landuz.

5. ildo estrategikoa: **Gizartearekiko** eta **ingurunearekiko ikasle konprometituak** hezitzea, ikasleengan pentsamendu autonomo eta kritikoa indartuz.

6. ildo estrategikoa: Bizikidetza positiboa sustatzea, partaide eta onartua sentitzea, **norberaren garapen emozionala** zein **elkarbizitzarako trebetasunak** eta **gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna** landuz.

7. ildo estrategikoa: Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan **teknologia berrien erabilera** areagotzea.

2. HELBURUA

Hezkuntza komunitate osoaren parte hartze aktiboa ahalbidetzea, elkarlana eta komunikazioa bultzatuz.

Beste ikastetxeekin elkarlana.

PROIEKTUAK, PLANAK ETA BESTE

- Zuzendaritza Proiektua
- Ikastetxeko organoen osaketa eta antolaketa.
- Behatokia.
- Ikastetxeko AJA.
- Intraneta.
- Web orria.
- APYMA /Aldizkaria.
- Pedagogia batzordearen eta Kalitate batzordearen funtzionamendua.
- Zikloen eta mailen antolaketa eta koordinazioa.
- Berritzeguneko mintegiak.
- "Kalitatea Hezkuntzan" sarea.

8. ildo estrategikoa: Eskola komunitate sendo bat eratzea non sektore guztiak (irakasleak, familiak, ikasleak, lan-legepeko hezitzaileak eta irakasle ez diren langileak) partaideak diren, **elkarrekin lan egiten** duten eta estamentu guztien arteko **komunikazioa estuagoa** den, giro atsegina batean parte hartze aktiboa bultzatuz eta guztiak heziketa-eragile bihurtuz.

9. ildo estrategikoa: Hezkuntza Proiektua eta Curriculum Proiektua gauzatzeko eta berrikusteko, irakasleen eta batzordeen arteko **elkarlana eta koordinazioa** bultzatzea.

10. ildo estrategikoa: **koordinaziorako eta elkarlanerako bideak eta tresnak** jorratzea, inguruko beste ikastetxeekin, kalitate hezkuntzan daudenekin eta hezkuntza eragileekin (Administrazio, Berritzegune, elkarte, udala, sareak, ...).

3. HELBURUA

Arlo pedagogikoan, antolakuntzan eta kudeaketan etengabeko hobekuntza sistemak ezartzea, autonomia handiagoa geureganatuz eta garatuz.

PROIEKTUAK, PLANAK ETA BESTE

- Zuzendaritza proiektua.
- Plan estrategikoa eta Urteko Plana/Oroitz
- Kalitatea Hezkuntzan proiektua.
- Hobekuntza Planak.
- Berrikuntza Proiektua.
- Kudeaketa ekonomikoaren programa.
- Ekipamenduaren kudeaketa

11. ildo estrategikoa: Etengabeko hobekuntza sistemak ezartzea, bereziki ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak zainduz, auto-ebaluazioa erabiliz eta berrikuntza bideratuz.

12. ildo estrategikoa: gestio ekonomikoaren autonomia zaintzea lehentasunak zehaztuz.

13. ildo estrategikoa: Azpiegiturak eta zerbitzuak hobetzen jarraitzea, instituzioekin harremanak bultzatuz. Ekipamenduaren kudeaketa eguneratzea

14. ildo estrategikoa: Ikastetxeko antolamenduaren eta funtzionamenduaren beharrizanak kudeatzeko dinamikak hobetzea: lehentasunak markatu, erabakiak elkarrekin hartu, bete diren konpromisoak ebaluatu, denbora kudeatu, ...

4. HELBURUA

Langileen etengabeko garapen profesionala eta konpromisoa sustatzea zein prestakuntza eta lan baldintza egokiak ahalbidetzea.

PROIEKTUAK, PLANAK ETA BESTE

- Zuzendaritza proiektua.
- Urteko Plana/Oroitzia.
- Prestakuntza proiektua
- Kanpo prestakuntza deialdiak: GARATU, ...
- Ikasturtearen planifikazioa: proiektuak, ardurak, erantzukizunak...
- Lan Arriskuen Prebentziorako arduraduna
- Hustuarazte plana
- Langile eta ikasleen istripuen aurreko jarraibidea

15. ildo estrategikoa: Irakasleen prestakuntza eta berrikuntza oinarritzat hartzea, beharrak identifikatuz eta horiei erantzuteko baliabideak jarritz, ikas-irakas prozesua hobetzen laguntzen dioten ildoak jorratuz.

16. ildo estrategikoa: Langileen konpromisoa bultzatzea, guztion inplikazioa indartuz, adostutakoaren jarraipena eginez.

17. ildo estrategikoa: Zuzendaritza taldea berritzatzeko **prozedura zehaztea**, guztion inplikazioarekin eta **persona gehiagok** aitzindari izatearen erantzukizuna **bere gain hartzeko asmoz**.

18. ildo estrategikoa: Langileen garapen profesionalerako lan baldintza egokiak lortzea, lan giroa eta ekimen atsegina **bultzatuz**.

19. ildo estrategikoa: Lan istripuen prebentzio plana eta segurtasun planak martxan jartzea. Lehen sorospenak oinarritzko prestakuntza jasotzea.



ESKOLA ETORKIZUNARI BEGIRA

“Etorkizunari begira Andra Mari ikastetxearen nahia da eskola komunitate sendoa eratzea, non sektore guztiak partaide diren, non guztien artean eskola aurrera eramaten dugula sinesten eta sentitzen dugun.

Izaera propioa duen eskola nahi dugu, adostutako oinarri pedagogikoez baliatuz, etengabeko hobekuntza zein prestakuntza aurrera eramanez eta, gero eta anitzago zein konplexuago den gizartean modu egoki, eskuzabal eta irekian jokatzeko gai diren ikasleak hezi eginez ahaleginduko den eskola”.



5.- CURRICULUMAREN ETA ANTOLAMENDUAREN ESPARRUETAKO AUKERAK

Azken urteetan sarritan hausnartu dugu irakaskuntza jardueraz. IPC, AIA, Plan Estrategikoa, programazioak, kalitate prozesuak eta beste egiterakoan, metodologiaren eta antolamenduaren inguruko akordioak hartu dira. Jarraian aipatzen diren akordio horiek, era batean edo bestean Hezkuntza Proiektu honetako lerro estrategikoetan ere badaude.

Hona hemen metodologia eta antolamendu aukerak:

Irakaslea erritmo-aniztasuna errespetatuko duen ikaskuntza-egoeren diseinatzaile eta eskaintzailea izateari lehentasuna eman. **(Programazioak)**

Ikaslea ikaskuntzan inplikatu, metodologia aktiboa garatuz. **(Programazioak)**

Hezkuntza pertsonalizatuen printzipioak garatu (singulartasuna, autonomia,), ikasleei buruzko ezagutzan oinarrituriko hezkuntza eskainiz eta horretarako, bakarkako eta taldeko tutoretza bereziki landuz **(Tutoretza azpi-prozesua, Bizikidetza Plana, Programazioak, Gela Jarduerak azpi-prozesua)**

Tutoretzetan taldearen eraketari garrantzia eman, ikasle berriei harrera ona eskainiz **(Bizikidetza Plana, Urteko Plana, Oroitza)**

Ikaste-irakaste prozesuan familiekiko harremanak bultzatu **(Tutoretza azpi-prozesua eta Harrera azpi-prozesua)**

Irakaskuntzan ikasle guztientzat eraginkorrak diren ekintzak diseinatu, hau da, berdinen arteko elkarrekintza eta lankidetzaren lan estrategiak bultzatu, gure ikasleek aniztasuna balio bat bezala ikus dezaten **(Programazioak, planifikazioak, ACIak, PIREak, talde elkareragileak y Antolakuntza azpi-prozesua)**

Ikasle bakoitzari hezkuntza-erantzun egokia eskaini eta, ahal den neurrian, hezkuntza behar berezien detekzio goiztiarra bermatu. **(Tutoretza azpi-prozesua, aholkulariaren satea)**

Hezkuntza oinarritzko kompetentziak garatu, teknologia tresnen erabilera horren parte bat izanik. **(IPC)**

Euskararen erabilera normalizatu, hizkuntza beikularra esparru guztietan izanda. **(Zuzendaritza Proiektua)**

Ingelesa irakasgaiaren trataeran funtzio komunikatiboa nabarmendu, curriculumeko arlo desberdinak ingelesez landuz. **(Ingelera proiektua, hizkuntza trataera..)**

Espazioaren erabilera antolatu hezkidetzaren printzipioak errespetatuz **(Bizikidetza Plana eta Urteko Plana)**

Ikaste-irakaste prozesua hobetzeko Etengabeko Ebaluazioari lehentasuna eman. **(Ebaluazioa azpi-prozesua, Ebaluazio Diagnostikoa)**

Mailako oinarrizko helburuak eta ebaluazio irizpideak zehaztu, eta ikasleria maila igarotzeko protokolo zehatz bat sortu. Erabaki hauen berri hezkuntza komunitateari eman. **(Ebaluazioa azpi-prozesua)**

Irakasleen etengabeko prestakuntzak eta hezkuntza berrikuntzari lehentasuna eman Urteko Planean islatuz. **(Prestakuntza azpi-prozesua, Urteko Plana eta Zuzendaritza Proiektua)**

Irakasleen eta euren batzordeen antolakuntza, ikasleen banaketa taldeetan eta baliabideen erabilera planifikatu, eraginkortasuna, denboraren kudeaketa zuzena bilatuz eta arautzen duten dokumentuak zabalduz. **(Antolakuntza azpi-prozesua, Harrera azpi-prozesua, AIA, Garraioa azpi-prozesua, Jantokia azpi-prozesua, Eskolaz kanpoko azpi-prozesua)**

Familien partaidetza erraztu bai Eskolako Kontseiluaren eta berroren batzordeen bitartez zein guraso elkartearikiko bileretan. **(AIA)**

Beste zentroekin esperientziak elkartrukatzeko mintegietan eta sareetan parte hartu. **(Berritzegune, Udala, Acex, Kalitate sarea, kanpoko eragileen harremanak...)**

Akordioak hartzeko, praktikan ipintzeko eta balorazioak egiteko, Kalitate Sistemak eskaintzen dituen adierazle eta beste baliabideak erabili. **(Kalitate Sistema)**

6.- Indarraldia eta mantentzea

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua bost urtetik behin zehaztuko da.

Dokumentuak, ikastetxeko Zeregina, helburuak eta lerro estrategiak izango ditu. Ondoren, Ikasturteko Planean lehentasunak finkatuko dira urte bakoitzerako.

Bost urte pasa ondoren Klaustro talde batek Ikastetxearen Zeregina/ Plan Estrategikoa berrikusiko du. Jatorrizko testua aldatzeko, moldatzeko, gehitzeko eta kentzeko proposamenak egingo ditu testu bat sortuz. Testu hau eskolako komunitatean jakitera emango da eta emendakinen bilketa prozesu bat zabalduko da. Emendakinak onartu edo ez onartzearen erabakia, lehen aipatutako Klaustro taldeari dagokio.

Azkenik, dokumentu berria Klaustroan eta Eskola Kontseiluan aurkeztuko da. Onartua izan ahal izateko, gutxienez, partaideen bi herena beharrezkoa izango da.

Ikasketa Buruari dagokio idazkera eta hedapenaren ardura.

Urteko Plangintza, ikasturte bakoitzeko idatziko da irailaren 30rako eta bere erredakzioa Zuzendaritzari dagokio.

Indarreko Urteko Plangintza, "Ikastetxeko Urteko Plangintza" izena duen formatu libreko txostenean biltzen da.